

01

Bakarrik dauden adingabeko etorkinekin jardueren alternatibak

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen
Behatokiko Taldea

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

2007ko Uztaila



3_S berrikuntza

Bakarrik dauden adingabeko etorkinekin jardueren alternatibak

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen
Behatokiko Taldea

2007ko Uztaila

Egileak: Aritza Bergara y Eduardo Escobés

Diseinu grafikoa: ST3 Elkartea

Imprimaketa: Berekintza

ISBN-13: 978-84-611-8420-0

Lege-gordailua: BI-2491-07

Prezioa: 10 euro

Argitalpen hau doan deskarga daiteke web gune honetatik: www.3sbizkaia.org

AURKIBIDEA

1	FAKTORIA KREATIBOA, TOPAGUNEA ETA IDEIA BERRIAK ETA AUKERAK BILATZEKO LEKUA	5
1.1	Faktoriaren diseinu orokorra.....	5
1.2	Nortzuk hartzen dute parte?.....	5
1.3	Metodologia.....	6
1.4	Momentuak.....	7
1.5	Metodologia eta prozedura-atalak	8
2	FAKTORIA KREATIBOA, BAKARRIK DAUDEN ADINGABEKO ETORKINEKIN LANEAN IDEIAK ETA AUKERAK	10
2.1	Gai aukeraketa.....	10
2.2	Parte-hartzaileak.....	11
2.3	Testuinguruko eta arreta prozesuetako elementu garrantzitsuak	12
2.3.1	Ikuspegia.....	12
2.3.2	Elementu eragileak eta oztopoak.....	14
2.4	Ekintza-ildo posibleak	15
2.4.1	Gaurko esku-hartzea aldatzen.....	15
2.4.2	Biharko esku-hartzea sortzen.....	17
3	ONDORIOAK	22

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren aurkezpena

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia informazio eta dokumentazio, ikerketa aplikatu eta sustapen zentroa da, hirugarren sektorean espezializatua, irabazi asmorik gabekoa eta independentea. Hirugarren sektorea sendotu eta erakundeen esku-hartzearen eta kudeaketaren berrikuntza eta hobekuntza sustatu nahi ditu.

Behatokia 2007an jarri da abian, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren, BBK-Gizarte Ekintzaren eta EDE Fundazioaren arteko lankidetzaren proiektu gisa.

Proiektu hau nahitaez irekia eta partekatua da. Halaber, sektoreko erakundeekin eta bere sareekin lankidetzan garatuko da; beren kultura eta esku-hartze eta kudeaketa jarduerak onak formalizatzen eta sozializatzen lagunduko du. Eta aldi berean, beste sektoreen irabazi asmoa duen sektore pribatua eta sektore publikoa- eta agenteen balio, aukerak, eta jarduerak onak txertatzea ahalbidetuko du.

“3S Berrikuntza” bildumak hirugarren sektoreko erakunde eta sareei eta interesatuta dauden agentei honako hau eskaini nahi die: euren esku-hartzea hobetzeko eta artatzen ez diren edo sortzen ari diren behar sozialei erantzuten lagunduko duten proiektu berritzaileak abian jartzeko ikuspuntuak, ikuspegiak, proposamenak eta tresnak.

Helburu honekin, Hirugarren Sektorearen Behatokitik, lanerako gune bat sortu dugu, non kreatibitate teknikak erabiliz, ikuspuntu desberdinak dituzten arlo zehatz bateko agente sozial aktiboak bilduko dituen, formatu bizi eta laburrean, euren ikuspegiak eta jarduteak partekatu, aztertu eta eztabaidatzeko eta sortzen ari diren behar sozialei erantzuteko aukera berritzaileak identifikatzeko.

Honela, “3S Berrikuntza” bildumako lehen zenbaki honetan bakarrik dauden Adingabeko etorkinen errealitateari buruz Faktoria Kreatiboan egindako lehen espezializazioaren emaitza aurkeztuko da. Hirugarren sektoreko erakundeek, administrazio publikoek eta beste agente sozialei ikuspegi eta ekintza proposamen zehatzak eskaini nahi dizkie, adingabekoen arreta hobetzen lagunduko dutenak. Horretaz gain, errealitate honek babes-sistemei eta harrera-gizarteari, administrazio publikoek, agente sozialei eta komunitateari oro har planteatzen dizkien erronkei erantzun berritzaileak ere eskaini nahi dizkie.

Faktoria Kreatiboaren markoan lan-talde baten emaitzak aurkezten diren lehen aldia denez, erabilitako metodologia ere azalduko dugu, antzeko esperientziak egiteko baliagarri izan daitekeelakoan.

1 Faktoria Kreatiboa, topagunea eta ideia berriak eta aukerak bilatzeko lekua

1.1 Faktoriaren diseinu orokorra

Faktoria Kreatiboaren helburu nagusia honako hau da: pertsona eta entitate parte-hartzaileek proiektu berritzaileak identifikatzea, esku-hartze sozialaren arlotik behar garrantzitsuei, sortzen ari diren beharrei edo artatzen ez direnei era kreatiboan erantzuteko.

Halaber, faktorian parte hartzearen ondorioz, parte-hartzaileek elkar ezagutzen dute, jarduera egokiak truka ditzakete eta aurrerago ere harremana mantentzen jarrai dezakete. Hori, jada, hasierako egoera kontuan hartuta aurrerapausoa da, askotan itxia eta atomizatuta baitago.

Laburtuz, ekimen hau martxan jartzean lortu nahi izan dena:

- Parte-hartzaileek euren jardueran txertatzeko ideia garrantzitsuak identifikatzea.
- Parte-hartzaileek beharretarako erantzun berritzaileak antolatzen lagunduko dizkien proiektuak identifikatzea, eta proiektu horiek bai beraiek bai beste agenteek aurrera eraman ahal izatea.
- Parte-hartzaileek arlo berean lan egiten duten beste pertsonekin konexio interesgarriak eratzea, aurrerago ere mantendu ahal izango dituztenak.

1.2 Nortzuk hartzen dute parte?

Faktorian parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko kontuan hartu den irizpide nagusia: hautagaien ekarpen potentzialaren balorazioa. Balorazio hori esperientzia, deialdia egin den unean landuko den gaiarekin duen lotura eta kreatibitate teknikak erabiliz taldean lan egiteko dituen jarrerak eta gaitasunak aintzat hartuz egingo da.

Osagarri gisa, interesgarritzat jotzen da ikuspuntu eta jatorri konbinazioa. Honela, saiatzeko gara, taldean, ahal denean eta egokia den guztietan, formakutza-irakas-kuntzako pertsonak, administrazio publikoetakoak, esku-hartze zuzena egiten duten entitateetakoak eta erantzuten saiaturiko garen beharrak dituztenak egotea.

Garrantzitsuena funtzionatuko duen taldea sortzea da, gaiari buruzko ezagutza dutenak, motibatuak, denbora dutenak, kreatiboak eta lantaldean aritzeko gaitasuna dutenak.

Taldearen funtzionamendua bermatzeko xedez, taldea 8 pertsona baino gehiagokoa eta gehienez 12koa izango da. Zortzi pertsona atalase minimoa da parte-hartzaileen artean beharrezkoak diren elkarreraginak sortzeko, bikoteka edo talde txikitan dinamikak egin daitezkeelarik. 12tik gorako kopuruak, aldiz, talde dinamika zailduko luke.

1.3 Metodologia

Erabilitako metodologiak ideia berritzaileen sorrera erraztu nahi du. Metodologiaren ezaugarria: bertan dauden pertsonen esperientzia eta ezagutza errealetik abiatzen da eta ikuspuntu, ikuspegi, praktiken... trukaketa, ekarpenen prozesamendua eta jarduera aberatsagoa sortzeko orokortze baliotsuen sorrera errazten du.

Uneoro ideia eta iruzkin guztiak aprobetxagarriak diren irizpidea hartu izan da kontuan. Horretarako teknika parte-hartzaileak eta kreatiboak erabili dira, pertsonen inplikazioa erraztu dutenak eta esperientziak, ikuspuntuak eta proposamenak aurkeztea erraztu dutena, hasierako muga bakarra bakoitzak aurretik daukan bagajea eta parte-hartzaileen irudimena direlarik. Edozein ideiak, hasiera batean harigarria bada ere, ikuspuntu eta proposamen berriak katalizatzeko balio dezake.



1.4 Momentuak

Metodologiak ikuspuntu eta ikuspegi desberdinak dituzten pertsonen arteko elkarreragin eta elkarrizketa maximoa bermatu nahi du denbora tarte laburrean (bi zuzeneko sesio). Gainera, prestaketa ekintza batzuk aurreikusten dira, nagusiki elkar ezagutza errazteko bideratuak. Zuzeneko sesioak eta gero ere beste batzuk egiten dira sintesi txostenak egiaztatzeko.

1. **Zuzeneko sesioen aurretik: Aurkezpena.** Faktoria Kreatiboan parte hartuko duten pertsonen dossier edo aurkezpena egiten dute. Bertan besteei beren lana deskribatzen diete, jarduera arlo zehatzarekin duten harremana, egiten dituzten lanak eta interesgarri iruditzen zaien bestelako informazioa ematen dute. Ondoren esperientzian parte hartuko duten pertsonen elkar ezagutza sakontzen da (nortzuk diren, zein den bere lana, landuko den gaiarekin erlazionatutako ekintzak,...). Horretarako aurkezpena eta ondorengo elkarrizketa egiten dira, elkarri galderak egiteko denbora emanez.
2. **Lehen sesioa: egoera-beharraren deskribapena.** Asmoa, arazora eta parte-hartzaileek arazoaz duten bisiora gerturatzea da. Horren emaitza Egoera Mapa bat izango da. Bertan adieraziko dira: aurre egin behar zaion arazoa edo egoera, eragiten duten faktoreak; hauek mailakatuta adierazten saiatuko gara eta lehentasunak markatzen. Kausa-ondorioak ere ezartzen saiatuko gara. Horrela, lehen sesio honek arazo edo beharraren deskribapenetik, adostasunez, eta berari lotutako analisi partekatu batetik abiatzen dela bermatu behar du.
3. **Bigarren sesioa: ekintza-lerro posibleen identifikazioa,** zentzu zabalean planteatuta, pertsona bakoitzaren kokapena kontuan hartu gabe eta ekintzarako aurkitzen dituen mugarik jarri gabe (“posible da beste pertsona batek zuk ezin duzun lekuan parte hartzea” pentsatuz). Tokiko, estatuko edo nazioarteko esku-hartze esperientzia desberdinak baloratu. Ideia edo ekintza-lerro horiek kokatzen saiatu, hau da, ezarritako lehentasunen arabera beraien beharra adierazten saiatu, arazoan sortuko litzuketen eraginak aztertu, norik eraman dezakeen aurrera horietako bat, nola egingo litzateke, beraien jasangarritasuna aztertu, etab.
4. Behin bigarren zuzeneko sesioa egin eta gero, sintesi txostena egingo da eta parte-hartzaileei bidaliko zaie ekarpenak egin ditzaten, batez ere, pertsona bakoitzak, taldearen elkarreraginaren ondoren, taldeari egin eta eskaini ditzakion ikuspuntu, analisi eta proposamenen inguruan.



1.5 Metodologia eta prozedura-atalak

Parte-hartzaileek lanaren garapena eta aurreikusitako metodologia errazago ulertzen diren, zenbait arlo hartu ziren kontuan. Besteak beste hauek izan dira:

4 ordu eta erdiko sesioak, ordu erdiko atsedendialdiarekin.

- Lanaldia hasten denean arreta galarazi dezaketenak kendu (erlojuak, telefono mugikorrak...), pertsona egin behar duen lanean zentratzeko.
- Gelan pertsonen banaketa zirkularra da. Era horretan guztiek ikus dezakete elkar.
- Gelak mugitzeko espazio nahikoa dauka (pertsonek elkarrekin ahalbidetzen du).
- Bisualizazioa ahalbidetzen duten tresnak daude (arbela, rotafolia...).
- Dekorazioa garrantzitsua da, kreatibitatearen garrantziari buruzko eta pentsamendu berritzaileari buruzko esaldiak edo ideiak jarritz.
 - *“Erroreek inoiz imajinatuko ez genituzkeen gauzetan pentsarazten digute”.*
 - *“Batzuetan, jada dakiguna “ahaztu” behar dugu aurrera egin ahal izateko”.*
 - *“Ez bazara huts egitera ausartzen, mugak jartzen ari zara zeure buruari”.*
 - *“Gauzak ez dira beti orain diren bezalakoak izan behar”.*
 - *“Zer gertatuko litzateke grabitaterik egongo ez balitz?”.*
 - *“Zer gertatuko litzateke lo egitea beharrezkoa ez balitz?”.*

- Sesioa beti espektatiba pertsonalen adierazpenekin eta partekatze bidezko nibelazioarekin eta eguneko helburuen azalpenarekin hasten da.
- Garrantzitsua da hasieran, gaiari heldu aurretik, beroketa ariketa bat egitea, burua ideia berri, desberdin, burugabeetara... -baina denek dute balioa- irekitzeko. Adibide gisa, sesio batean ondorengo planteatzen da:
- *“Langile bat lanera doa goizean. Kaletik eraikineko beheko solairura iritsi da, igogailuan sartu da eta 10. solairuraino igo da. Ondoren oinez 12. solairuraino igo da. Han dago bere bulegoa. Arratsalde amaieran, igogailua 12. solairuan hartu eta beheko solairuraino jaitsi da. Eraikinetik atera da eta etxerantz doa”. “Zergatik” portaera hau?, benetako “zergatik” al dago?, zenbat “zergatik” dago?*

Proposatutako adibidearen inguruko hausnarketaren bidez, pertsonak egunean erabili nahi den pentsatzeko, jarduteko, elkarreragiteko jarrera hartuko dute. Proposatu den gaiari dagokionez, aurrerago landuko den arazo edo beharrea bezala - bakarrik dauden Adingabeko etorkinak eta erantzuteko alternatibak-, beharrezkoa da balioko duen azalpen bat baino gehiago dagoela adieraztea.

Batzuk besteak baino logikoagoak edo egingarriagoak izango dira, baina guztiak ongi etorriak dira eta kontuan hartu behar dira Faktoria Kreatiboan. Garrantzitsua da mugarik jarri gabe pentsatzea. Egoerak era batekoak edo bestekoak izan daitezke, erabiltzen den buru-eskemaren arabekoak. Pertsona bakoitzaren esku dago ikuspuntu desberdin, berri edo desafiatzailatik begiratzea.



2 Faktoria Kreatiboa, bakarrik dauden Adingabeko etorkinekin lanean ideiak eta aukerak

2.1 Gai aukeraketa

Errealitate soziala konplexua eta zabala da. Hirugarren sektoreko erakundeak eta administrazio publikoak, babes sozialeko sistematik, gabeziak eta potentzialtasunak biltzen dituzten egoera ugari lantzen dituzte. Azken hamar urteetan egoera ahulean dauden atzerritarren arreta eta esku-hartzea areagotu egin da. Momentu honetan errealitate bat da, eta horri aurre egiteko moduak eragina izango du gizartearen etorkizuna eratzeko orduan.

Populazio atzerritar babesgabeen artean egoera desberdinean dauden pertsonak daude. Adinaren aldaera faktore garrantzitsua da babes sozialeko politikak eta ekintzak diseinatzeko eta aplikatzeko orduan. Atzerritar ahula eta Adingabekoa izateak, ezaugarri eta behar bereizgarriak dauzka. Kolektibo hau “bakarrik dauden Adingabeko atzerritarrak” (MENA) izenez izendatu da.

Orain dela urte batzuk Arartekoak arreta berezia jarri zuen adingabeko hauen arazoan, eta zehatzago, Lurralde Historiko bakoitzean beraientzat zehazki presatutako hainbat zerbitzuetan jasotako Adingabekoen egoeran. 1996an EAEko babes zentroak bisitatu ziren eta Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak ezohiko txostena idatzi zen. Momentu horretan oraindik errealitate ia ezezaguna zen eta minoritarioa.

Txostenaren ondoren dokumentaziorik ez duten nerabe eta gazte atzerritar kopurua handitu egin da EAEn. Gehienak Marokokoak dira, eta kasu askotan adingabekoak diren ala ez jakiteko hezurretako probak egin behar zaizkie dokumentaziorik ez dute eta. Gizonezkoak dira gehienak (%98). Duten adinagatik Estatu hartzailea behartuta dago babes instituzionala garatzera, Haurren Eskubideen Nazioarteko Konbentzio markoak adierazitakoaren arabera.

Eskuarki, iristen direnean proiektu edo asmo nahiko argia izan ohi dute: beharrezkoak diren hizkuntza edo hizkuntzak ikasi; paperak lortu; lanean hasi ahalik eta azkarren; euren familiei laguntza ekonomikoa eskaini. Batzuk soilik iragaitzaz daude eta beste gune geografikoetara joateko asmoa dute; beste batzuk, aldiz, hemen geratzea erabakitzen dute eta beren espektatibak eta desioak asetuko dituen bizitza autonomoa egiten saiatzen dira.

Azken urteetan argi geratu da egoera eta errealitate sozial honi aurre egiteko prestakuntza falta dagoela. Erantzunak ez dira ondo antolatu. Oro har baliabide espezifikoak sortu dira (urgentziazko zentroak edo abegi zentroak, bakarrik beraiantzat). Batzuetan, gero eta sarriago, zentro horiek gainezka egin dute. Honek konpontzen zailak diren gatazka egoerak sortu ditu. Horietako batzuk komunikabideetan agertu dira eta nolabaiteko kezka edo alarma soziala sortu du.

Ez da erraza erantzun egokia era eraginkorra ematea, adingabekoentzat ona dena, beren eskubidea den babes sistema errespetatuko eta garatuko duena, eta hartzen dituen lurraldeko aukera errealitatik, sozialetatik eta instituzionaletatik abiatuko dena.

“Faktoria kreatiboaren” asmoa horren inguruko hausnarketa egitea, esperientzia errealak kontuan hartzea, egungo praktikatik abiatzea eta pentsamendua eta irudimena alternatiba berrietara irekitzea da.

2.2 Parte-hartzaileak

Faktoria Kreatiboaren lehen esperientzia honetan parte hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu:

- Amaia Gómez, Goiztiri elkarteko kidea.
- Francisco Javier Edo, AVAR-errefuxiatuari laguntzeko Valentziako elkarteko kidea.
- Iñaki Bengoetxea, Gipuzkoako Foru Aldundiko langilea.
- Jesús Castañedo, Goiztiri elkarteko kidea.
- Jose Manuel Lopez, Pluralismo y convivencia Fundazioko kidea (Madril).
- Jose Mari Lezana, Gipuzkoako Foru Aldundiko langilea.
- Marta Silvano, Loiolaetxea-Gipuzkoako kidea.
- Moufdi Kamel, Biltzen-eko langilea.
- Olatz Aretxaga, CEAR-Euskadiko kidea.
- Txema Viloría, Bizkaiko Foru Aldundiko langilea.
- Verónica Redondo, Durangoko Udaleko inmigratio-technikaria.

Pertsona guzti hauek era indibidualean parte hartu dute nahiz eta zerrendan lan egiten duten entitate edo administrazioak adierazi diren. Taldearen osaketak hirugarren sektoreko eta administrazio publikoetako pertsonak egotea ziurtatu du. Sei Bizkaiko Lurralde Historikotik datoz, hiru Gipuzkoatik eta bi Estatuko beste bi Autonomia Erkidegoetatik (Madril eta Valentzia). Lehenengo saioan hamaika pertsonak hartu zuten parte. Bigarrenean pertsona batek huts egin zuen; aurretiaz jakinarazi zuen eta lan kontuak zirela eta ez zen joan.

Azkenik adierazi behar da txosten honetan adierazitako ideiak Faktoria Kreatiboan parte hartu dutenek eman dituztela. Horrek, baina, ez du esan nahi guztiekin identifikatzen denik.

2.3 Testuinguruko eta arreta prozesuetako elementu garrantzitsuak.

Bakarrik dauden Adingabeko atzerritarrei laguntzeko aukera eta lanerako bide berriak lantzeko abiapuntua ikuspegi egokia hartzea eta aztertu behar diren eta hobetu behar diren gaur egungo esku-hartze eta proposamenen arloak identifikatzea da.

2.3.1 Ikuspegia

Hausnarketa partekatutik abiatuz adieraz daiteke gaur egun garatzen diren ekintzek behar dutela:

- gaur egungo errealitatearen eta bertan esku-hartzeko aukera desberdinen inguruko bisio globalagoa eta artikulatuagoa.
- oinarrizko irizpide partekatuak sortzea, oinarri-lerro adierabakarra duena, esku-hartze maila eta espazio guztiek partekatu ditzaketen minimo komun posibletatik abiatuz.
- administrazioen artean, erakundeen artean, eta administrazioen eta erakundeen artean interpretazio komunerako espazioa sortzea, plangintzak, jarduerak hobeto artikulatzen lagunduko duena eta aktoreen artean egon daitezkeen desberdintasun legitimoko espazioak argituko dituen.
- agertoki berriak eraikitzeko denbora eta esfortzua, praktiken, aukera berrien eta orientatzen duten marko teoriko berri eta zaharren inguruko hausnarketa konbinatuz.
- gaur egun, esku-hartze publiko eta sozialaren ikuspuntutik, egoera geldidagoela kontzientziatu. Egun, aldatzen ari diren errealitateei era errektiboan eta automatikoan erantzuten zaiela jabetu.
- etorkizunak eduki beharko lituzke aukerak eta hobekuntzak hipotekatzen ari diren egungo emergentziak eta presak gaingiditu.

- esku-hartze zehatzetik haratago doan bisioa eduki, sare komun batean txer-tatuta dagoen kontzientzia edukiz, non parte hartzaile bakoitza agente parte-hartzailea den.
- jatorrizko herriein eta beren erreferentziazko komunitateekin duten lotura aukera gisa ikusi, dauden errealitateak konplexuak eta desberdinak direla jakinda.
- sareetan gehiago pentsatu, helburu eta subjektu zehatzak dituen koordinazioan.
- hamarkadetan pentsatu, ziklo luzeetan pentsatu. Horrela egoerak berriz diseinatu eta berriz orientatzeko erronka bezala ikusi ahal izango ditugu, eta ez arazoan aurrean sortutako erreakzio gisa.
- bertako populazioa sentsibilizatuko duen ekintza kontzientzia, ez bakarrik esku-hartze zuzenean edo arreta-politiketan geratuko dena. Ekintza adingabekoen harreta zuzena baino gehiago dela erakutsiz.
- espazio sozial eta komunitario guztietatik topikoak apurtzeko lan ildo posibleak txertatu eta kontzientzia solidarioak eraiki.
- instituzio publikoen erantzuna beharrezkoa dela uste izan, baina erantzun soziala ere behar dela ulertzea, bai era kolektiboan bai era indibidualean ere.
- lege markoa bera eta betetze maila aztertu, bereziki baliabide sozialetara sarbidea zaildu edo erraztu dezaketen arloak, dokumentazioa, laguntza sare formal edo informalen eraikuntza.
- jada hemen daudenak kontuan hartu parte-hartze aktiboko agente gisa.

Aurreko paragrafoetan gabezia batzuk azpimarratu dira. Gabezia horiek identifikatu eta onartu dituztenek bakarrik dauden adingabeko atzerritarren egoerari erantzuteko eta beren harrera errazteko babes sistemen garapena edo egokitzapena garatzeko edo horretan parte hartzeko erantzukizuna dute, beste batzuen artean.

2.3.2 Elementu eragileak eta oztopoak

Profesional hauek, beren lana aztertzen dutenean eta beste pertsonak edo instanzietatik egiten duten lanarekin kontrastatzen dutenean, esku-hartze oro eragileak edo benetako oztopoak izan daitezkeen hainbat faktorek baldintzatzen dutela adierazten dute:

- **informazio sistema.** Egungo sistema topikoetan oinarrituta dago eta adingabekoen irudi okerra eskaintzen du. Informazio sistema fidagarriak eta osatuak sortu behar dira, beren existentziari eta egoerari buruz informazio kuantitatibo eta kualitatibo zehatza eskainiko dutenak.
- **politika sozialak.** Sustatzen diren politika sozialak babes eta laguntza sistematik garatzeko markoa dira. Hori dela eta, aldaketa sozialei erantzuteko gaitz izango den sistema egokia sortzeko, aplikazio egoeren bisio orokorra behar da eta etorkizunera begiratu behar da, estrategia handiak egin ahal izateko.
- **esku-hartze irizpideak.** Beharrezkoa da irizpide komunak izatea eta irizpide horietan egin daitezkeen egokitzapen edo moldaketek ez ditzatela lurralde desorekak sortu babeserako prozesu edo sistemetan. Babes sistemen garapenean edo egokitzapenean jarduten duten Estatuko maila desberdinen jardueran “ardatz nagusiak” behar direla argi eduki behar da. Era honetan oztopo edo irizpide “apetatsuen” sorrerak ez du bideratuko Adingabekoak lurralde batzuetara bideratzea besteak alde batera utziz.
- **babes-sistema.** Aipatu sisteman sartzeko eskatzen diren probak batzuetan oztopo edo zailtasun bilakatzen direla uste da. Jarduera irizpide eta protokolo argiak egin behar dira, komunki jarriak, eta heltze etaparanzko trantsizioa kontuan hartuko dutenak.
- **pertenentzia-sentimendua eta errotze soziala.** Normalean Adingabeko beste taldeek eta helduen taldeek ez dituzte Adingabeko atzerritarrak onartzen. Hori dela eta, beren kontaktu eta harreman ia bakarra beraiekin edo egoera sozial berean dauden Adingabekoekin ematen da. Beste arlo sozialekin harremanik eta loturarik ez edukitzea zailtasun faktorea da esku-hartzean eta beraien prozesu pertsonal eta talde prozesuetan.
- **bizi-prozesuak artikulatu parametro kultural desberdinetatik abiatuz.** Norberaren erreferentziak eta dinamika kulturalak Adingabekoak bere buruarengan dituen espektatibak eta helduak berarekiko dituen espektatibak baldintzatzen dituzte. Desberdinak dira estatu eta testuinguru desberdinetako Adingabe-

koentzat, beraz, ez dago akordiorik gizarte honek eta bere babes sistemak beraiantzat planteatzen dutenaren eta beraiek bilatzen dutenaren artean.

- **bizitzaren egoeren eta baldintzen inguruan sentsibilizatzeko gaitasuna.** Gizarte-erakunde askok beren indarrak bertako populazioaren pertzepzioa aldatzera bideratzen dituzte. Ezinbestekoa da esfortzua errealitatetik abiatuta egitea, ez estereotipo positibo edo negatiboetatik abiatuta. Izan ere, estereotipoak erabiliz, lagundu beharrean, distantzia eta akordio falta areagotzen dira.
- **hezkuntza-sistemaren malgutasuna.** Hartu eta abegi egin behar dien hezkuntza-sistema, baina eskaintzaren azterketa behar duena. Adingabekoen beharrak eta bilaketak kontuan hartu behar dira, eta askotan, ikasketa prozesu batean formalki hastea ez da beren lehentasuna izaten.
- **legedia eta sinatutako nazioarteko itunak bete.** Estatuak Adingabeko etorkinak babesteko legedia garatu du eta nazioarteko itun eta akordioak berretsi ditu. Beraz, arautzen eta agintzen duen berezko arau-markoa badago. Batzuetan, ordea, arauak interpretatzerakoan arbitrariotasun egoerak identifikatzen dira. Hori dela eta, sozietate zibilak eta bere erakundeak legedia errespetatzen dela zaindu behar dute.
- **familia berriz elkartzeko politika.** Ahots batzuek adierazi dute jende-olde edo asetasun egoerak ematen direla. Horren ondorioz Adingabekoen eskubideak murriztu egiten dira eta lehentasuna ematen zaie aberriratzeei, batzuetan irregularrak edo legez kanpokoak direnak. Aberriratzete hauek egiten direnean ez da ziurra Adingabekoa bere jatorrira heltzen dela edo familiarekin elkartzen dela. Gainera ez da egiaztatzen Estatuan senitartekorik duen beraiekin elkartzeko.

2.4 Ekintza-ildo posibleak

Modu batean edo bestean Bakarrik dauden Adingabeko Etorकिन arazoan eragiten duten faktoreak identifikatu ondoren, beharrezkoa da era zabal eta irekian ekintza bide posibleak identifikatzea.

2.4.1 Gaurko esku-hartzea aldatzen

Lehen pausoa pertsona bakoitzak egiten duen lana aztertzea da eta bakarrik dauden Adingabeko etorkinen esku-hartzean hobekuntza nabarmenak sor ditzaketen aldaketa txikiak identifikatzea. Izan ere, egiturazko aldaketa sakonek ez dituz-

te beti aldaketa garrantzitsuak ziurtatzen. Kasu batzuetan pertsona bakoitzaren esku egoten da, lan egiten duen arloan, uste baino hobekuntza aukera gehiago. Ildo hauetan behar da:

- a) Harrera eta enpatiari garrantzi handiagoa eman, esku-hartzeak kalitate handiagorekin egin eta dimentsio pertsonaleko harrera lasaiago egin, gaztearen errealitatearekin hobeto konektatzea ahalbidetuko duen arreta eskainiz.
- b) Urgentziei arreta eskaintzen jarraitu, baina prebentzio terminoetan pentsatu. Taldean antolakuntza hobea eduki, profesional bakoitzak bere lana egitea eta bere ezagutza aplikatzea ahalbidetuko duena.
- c) Atzeritarrei buruzko Legea, zehazki 2393/04 Errege-dekretuaren 72.3 Artikulua moldatzera bideratutako ekintzak eta lankidetzak sustatzeko lan egin. Izan ere egonaldi baimena lortzeko behar den denbora 3 urtetik 5 urtera handitzen du artikuluko horrek, babes ofizialeko sistema ez dagoelako aldaketa honetarako prest eta arazoa larriagotzen duten zentzugabeko neurriak ezartzera “behartzen” duelako, adibidez, Marokon Aberriaritze Zentro Autonomikoak. Gainera, lege aldaketa honek etorkinen batezbesteko adina jaitsiarazten du. Etorkinak 15-16 urterekin etorri beharrean orain 13 urterekin etortzen dira; horrela 5 urte egoten dira eta 18 urteetarako “paperak” lortu ahal izateko.
- d) Adingabeko hauek hezkuntza-sisteman egongo direla ziurtatu, horretarako baliabideak eskainiz eta harrera-zentroen eta ikastetxeen arteko lankidetzak artikulatuz. Horrela Adingabekoen hezkuntza-arreta indartuko da. Izan ere gaur egun ez dira hartzen dituen herrian integratzen, baina ezta gero eta gazteago uzten duten jatorrizko kulturaren ere.
- e) Gizartean oro har etorkinenganako sentsibilizazio eta kontzientzia sozialeko ekintzak eta intentsitatea indartu. Jakin badakigu migrazio-fenomenoa kontzientzia pertsonal eta kolektiboen eta administrazioen lanaren aurretik doala. Hori dela eta lehenetsuna eman behar zaie harrera, integrazio sozial eta laborala, ekintza neurri positiboak, kultura arteko elkarbizitza, kontaktua, harremana eta esperientzia trukaketa erraztuko dituzten pentsamendu aldaketak. Migrazio-fenomenoa era globalean ezagutzea ere lehenetsuna da (sortzen duten arrazoiak, atzeritarrei buruzko legea, prozesuaren zailtasunak, euskal gizartearen aportazioa...).
- f) Sentsibilizazio eta harrera esfortzu batzuk fokalizatu herri zehatzetan. Herri txikietan sozializazioa zailagoa dela uste da. Hori dela eta herri horretan lan

taldeak sortu behar dira, gai horri helduko diotenak eta harrera baldintza egokiak prestatuko dituztenak.

- g) Esku-hartze prozesuetan beharrezkoa den jarraipena eta plangintza berrikusi eta egokitu, harrera egiten denetik emantzipazio fasera arte. Adingabekoaren eboluzioaren bisio globala eduki behar da, inplikaturata dauden agente guztien artean koordinazioa eta adostasuna, eta benetako lan komuna.
- h) Kudeaketa lanetan ematen den denbora murriztu eta beste gizarte-erakundeekin konexioa handitu. Horiekin, bakarrik dauden Adingabeko etorkinen presentzia dela eta populazioaren sektore askok gaur egun duten irudi gatazkatsu eta mehatxatzailea aztertu eta aldatu.
- i) Arlo honetan I+G ekimenak sustatu; profesionalek prestakuntza gehiago eta harreman handiago eduki, eta etengabeko hobekuntzarako logikak txertatu.

2.4.2 Biharko esku-hartzea sortzen

Parte hartzaileek beren ingurunetik edo beren esku-hartze prozeptik sustatu ditzaizketen aldaketak azaldu ondoren, orain egin ahal izateko beste agenteen erabakia eta parte-hartzea eskatzen duten proposamenak azalduko ditugu. Horietako batzuk parte hartzaileek garatu ahalko dituzte, beste batzuk, aldiz, ez. Zehazki alderdi hauek adierazten dira:

Babes-sistemarekin lotuta:

Igarotzako harrera zentroa sortu, aterpe motakoa, non Adingabekoei arreta eta orientazioa eskainiko zaien, beren egoera, espektatibak eta proiektu pertsonala kontuan hartuz.

Koordinazio protokoloak beharko lirateke maila guztietan (poliziala, juridikoa, administratiboa...) eta Adingabeko bakoitzaren behar eta espektatiben esku-hartzea neurri handi batean egokitze aukera eskainiko luke. Mota honetako ekimena arau-markoan begietsi beharko litzateke eta administrazio publikoen arteko lankidetzatik, Europar Batasuna barne, babes funtzioa bermatu beharko luke.

Mota honetako ekimenak dituen behar, aukera eta zailtasun posibleak aztertzerakoan, honakoa adierazten da:

- Liderrak administrazio publikoak izan beharko lirateke eta arlo honetan lan egiten dutenen kontzientzia aldaketa eskatzen du. Adingabeko bakoitzaren espektatibei benetako arreta eskaintzea ahalbidetu behar da, jatorriko kultur markoaren arabera bere adina kontuan hartuz.
- Arreta, informazio eta aholkularitza baliabide oso pertsonalizatuak eduki beharko lituzke, Adingabekoari autonomia maila handiarekin bere bizitzari buruz erabaki garrantzitsuak hartzen lagunduko diotenak.
- Komenigarria litzateke espazio hauetako egonaldiari denbora ez jartzea; egonaldiak aldi baterako direla bermatu, harrera zentroetan gertatu den bezala.
- Adingabeko gatazkatiak kanpoan utz ditzake. Hauek dira arreta behar handiena dutenak.
- Nazioarte mailan estandarizatutako eta adostutako “Adingabekoaren interes nagusiaren” kontzeptua zalantzan gera liteke malgutasun eta egokitzapen pertsonalizatua egitean.
- “Tutoretza eten” edo “bizitza programa independenteak” bezalako kontzeptuekin erlazionatzen da. Adingabeko baten kasuan zalantza sortzen da Adingabekoak bere bizitza-proiektuagatik tutoretza ez onartzea erabakitzen badu.
- Planteamendua aldatzen da eta prozesuan parte hartzea erabakitzen duen Adingabekoaren konpromisoa eskatzen du, bere erabakia baita. “Babes prozesuan” txertatzen diren Adingabekoen filtro antzekoa litzateke, prozesuan Adingabekoari protagonismo handiago eskainiz.
- Kasuak indibidualizatzeko balioko luke.
- Adingabeko tipologia bati soluzioa emango lioke. Adingabeko batzuk ez dute formalki babes sisteman sartu nahi.
- Adingabeko emantzipatuaren irudia sor lezake. Irudi honek lege mekanismo zorrotzak eskatzen ditu. Ildo honetatik joan daitezke adingabeak daude, baina kontu handiz eman behar dira pausoak eta aktore klabeak inplikaturata egon behar dira.

Familia berriz elkartzeari dagokionez:

Marokon bertako elkarte taldeak garatu, elkartasun sare primarioen desagerpena ekiditeko eta famili integrazioa sustatzeko solaskide gisa.

Migrazio prozesu hauek familiak apurtzen dituzten beren jatorrian. Jatorriko sozietate zibila indartu. Honek emigrazio arriskuan dauden familien eta adingabekoen arazoa ezagutzen duen gertuko aktore baten solaskidetza eta parte hartzea edukitzean lagunduko ligoke. Harrera estatuetako eta jatorriko estatuetako gizarte-erakundeek batera gara dezakete.

Mota honetako ekimen bat(ek)/ batean:

- Garapeneko lankidetzaren testuinguruan gara liteke.
- Jatorriko estatuaren eta estatu hartzailearen elkar ezagutzan aurrera egitea eskatuko luke.
- Jatorriko estatuan erakunde egoki eta formalak egotea eskatuko luke, mota honetako ekimenetan inplikaturiko liratekeenak.
- Jatorriko estatuaren eta estatu hartzailearen arteko ezagutza erraztea beharrezkoa ere izango litzateke.
- Epe luzerako prozesua izango litzateke.
- Inbertsioa egitea eskatzen du eta emaitzak ez daude ziurtatuak.

Harrera eta errotze sistemari dagokionez:

Adingabeok hartzeko sarea sortu, familietan txertatuak. Familia horiek laguntzak jasoko lituzkete (laguntza ekonomikoak, arreta, laguntza, orientazioa...).

Jarraipen zerbitzuak eta gai desberdinetan orientatzeko zerbitzuak (administrariak legalak, kultura artekoak...) beharko lirateke. Errotze soziala ahalbidetuko luke, harrera zentroetako masifikazioa eta adin nagusira heltzean dagoen babes falta ekidituko lituzke. Administrazio publikoen, gizarte-erakundeen eta esperientzia hau bizitzeko prest dauden familien artean ondo eta kontu handiz koordinatu beharko da. Funtz publikoen erabilera, kontzientzia sozialean aldaketa eta apustu politiko argi eta arriskutsua eskatzen ditu.

Mota honetako ekimen bat(ek)/ batean:

- Instituzioen eta familien arteko elkarrizketa dinamika oso zaindua eman beharko litzateke.
- Familiek eta adingabeek horretarako jarrera eduki beharko lukete.
- Legea aldatu beharko litzateke eta arlo berri hau jada dauden baliabideekin lotzeko mekanismoak sortu beharko lirateke.
- Familiei laguntza sistema sustatu beharko litzateke.
- Koordinazio txarragatik edo harrera familiak falta direlako ahuldu daiteke.
- Apustu handia litzateke, baina arrisku handiekin, adibidez, familiaren edo adingabeokaren kontrol falta, administrazioen laguntza egokia ez izatea,...
- Adingabeok adin nagusira heltzean irudi honen eboluzioa zehaztu beharko litzateke.
- Integrazioa eta errotze soziala erraztu dezake.

- Prozesu pertsonalagoak erraztuko lituzke.
- Adingabekoek emozio-gabeziak bete ahalko ditu eta beraien oreka psikologikoa hobetuko luke.
- Gizarteak migrazio fenomenoaren inguruan duen pertzepzioaren aldaketa erraz lezake.

Harrera eta errotze sistemari dagokionez:

Familiak berriz elkartzeko prozesuak familia handien kasuan, penintsulan dauden gazteen jatorri-senitartekoak bilatu eta integrazio ate errotze soziala ahalbidetu.

Administrazioak eta gizarte-erakundeek mota honetako prozesuak garatzeko ardua har dezakete.

Mota honetako ekimen bat(ek)/ batean:

- Familia horiei buruzko informazio fidagarria behar da, pikarokeriak ekiditeko.
- Familia horrekin era sistematikoan lan egin behar da.
- Autonomia Erkidegoen artea koordinazioa eta jarduera-protokoloak gauzatzeko politika eskatzen du.
- Adingabekoaren iritzia jaso eta kontuan hartu behar da.
- Kasu bakoitzaren jarraipena administrazio zentralak eta autonomia erkidegoek egin beharko lukete, koordinazio sistema baten bidez.
- Ez da administrazioen arteko arazoa bihurtu behar. Administrazioek erantzukizuna besteari leporatzeko modutzat har dezakete.
- Kostu ekonomiko txikiagoa izango da.
- Zentroak ez lirateke leporaino beteta egongo. Horrela bertan dauden adingabekoen arreta hobetu egingo litzateke.
- Jatorriko familia gehiago inplikatu litzateke, nahi izanez gero.
- Etorkinen populazioa onartzea litzateke, populazio horrek, bai hezkuntzan, laguntzen, errotze sozialean,... egingo zuen lanagatik.

Harrera eta errotze sistemari dagokionez:

Gure lurraldean finkatuta dauden jatorri-komunitateekin lankidetzaren harremanak sortu.

Funtzionatzen ari diren edo sortze bidean dauden erakundeak eta solaskide izateko liderrak identifikatu behar dira. Identitate positiboaren mantenua/garapena, integrazio eredu/ibilbideak eta arreta hobetuko duten klabe kulturalen ezagutza erraztuko lituzke.

Mota honetako ekimen bat/ batean:

- Kolektibo desberdinak, beren arau kulturalak, lankidetzarako gogoak... eza-gutu beharko lirateke, zein erakundetan aritu diren ezagutu, funtzionamendu dinamika onak identifikatzeko eta babesteko.
- Jatorriko estatuetakako pertsonala beharko litzateke, kultura arteko bitartekari lanak egiteko.
- Elkarte multzo garrantzitsua egon behar du eta sarean artikulatua. Alde batetik etorkinen populazioan elkarte mugimendu gutxi dago, eta bestetik, batzuetan, jatorri nazional bereko elkarte desberdinak daude.
- Gaur egungo elkarrekin liderrengan interesak sortuko lirateke, eta kasu batzuetan, erakunde batzuen jardura txarrak indartu litezke.
- Bizikidetasuna erraztuko lukeen etorkizuneko ideia da.

Babes sistemari dagokionez:

“Adingabeko izatearen presuntzioa” mantendu horrela egiaztatzen duen dokumentazioaren bat dagoenean edo pertsonak adierazten duenean.

Mota honetako proposamen batek gaur egun dagoen babes sistema moldatzea eskatzen du. Dinamika gardena eskatzen du, “adingabeko izatearen presuntzioa” gailenduko duena. Justizia administrazioa izan beharko litzateke burua, eta funtsean, borondate politikoa behar du.

Mota honetako ekimen bat(ek)/ batean:

- Parte hartzen duten agenteek onartu beharko luketen presuntziotik abiatzen da.
- Adingabekoak aurkezten dituen dokumentuak edota bere hitza hasieratik errespetatzea eskatzen du.
- Administrazioak datu eta froga bidez erakutsi beharko du pertsona hori ez dela adingabekoa eta ondorioz babes sisteman ezin dela sartu.

Dokumentazio prozesuei dagokionez:

Doako laguntza juridikoa adingabekoei espainiar lurraldera iristen direnetik, ofiziozko txandakako sistema bidez, profesionalen elkargoekin lankidetzan.

Era honetan familiak berriz elkartzeko prozesuetan berme falta ekidituko litzateke. Lege betetzea errazteko, prozesu gardena dela erakustea, asilo eskatzaile potentzialak detektatzeko...?

Autonomia Erkidegoetako justizia Sailen bidez gara daiteke, profesionalen elkar-goekin lankidetzan.

3 ONDORIOAK

Amaitzeko esan daiteke, orain arte adierazitakoa kontuan hartuz, Bakarrik dauden Adingabeko Etorकिनен fenomenoа gizarте hartzaileetako instituzioek aurreikusi ez duten erreallitatea izan dela. Horrek bere isla izan du orain arte egin diren esku-hartzeetan. Horrela, egin diren hausnarketetan argi ikusten den bezala, orain arte arazoa erantzun urgente bidez konpontzen saiatu da, plangintzarik gabe, instituzioen arteko eta instituzioen eta inplikaturik dauden gainerako entitateen (erakundeak, GGKEak, eta abar) arteko koordinaziorik gabe.

Horren ondorioz, eta adingabekoen inmigrazio fenomenoа urritu beharrean mantentzen dela eta larriagotuko dela dirudienез -emigratzen duten adingabeen kopurua handituz doa, batezbesteko adina txikiagoа da, eta abar-, argi dago hausnarketa beharrezkoa dela erreallitate hau aldatzen saiatzeko.

Jada ez dute balio urgentziatzko konponbideek, plangintzarik gabekoak, lortu beharreko helburu argirik ez dutenak.

Beraz, horren inguruan egindako hausnarketatik abiatuz, zentzuz antolatutako eta bideratutako esku-hartze politikа zehaztu behar da, hurrengo urteetan garatuko diren ekintzak bideratuko dituenа. Soilik gaur egungo egoeraren azterketatik planifika daiteke etorkizuneko esku-hartzea, inplikaturik dauden agenteen artean koordinaturik egongo denа. Horrela esku-hartze hobea lortuko da, berau sortzen duen azken helburua lortzea erraztuko duenа. Eta gogora dezagun helburu hori adingabekoen ongia dela.

Horretarako elkarriketarako guneak behar dira, non aktoreek esperientziak eta ezagutzak trukaturik dituzten, beraien arteko koordinazioа hobetuko duten eta ondorioz, ekintzen eta esku-hartzeetan eraginkortasun hobea lortuko dute. Gune hauek beharrezkoak direla eta ugaritu behar diren ustetik, Hirugarren Sektoreko Behatokiak, agenteen artean hausnarketa egiteko eta elkartzeko tresna txiki hau eskaini nahi izan du, berritzailea, Faktoria Kreatiboa denа.

Pertsonек jaio diren lurra uzten dutenean gosegatik edo oparotasunagatik egi-ten dute. Arrazoi hauek batzuetan elkartuta doaz. Gaur egungoa bezalako egoera

mantentzen den bitartean, hau da, herrien arteko desberdintasun ekonomikoak eta bizi-kalitate desberdintasunak hain handiak diren bitartean, migrazio mugimenduak egongo dira.

XXI mendean kontraesana izugarria da: ustez hobe eta justuagoa den mundu globalizatu hori eraikitzeko, mugak ezabatzeko borrokan eta igarotza librea aldarrikatzen aitzindari diren herriak dira hain zuzen ere, mugen ixtea eskatzen eta aplikatzen, igarotza librea murrizten lehenak, premisa hauek merkantziei beharrezkoak aplikatzen zaizkienean. Kontraesan horiek gainditu beharko ditugu mundu hobe eta justuagoa lortu nahi badugu.